


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

101n. Zenbakia **Urrilla**
1986



OTALORA TORRE-ETXEA

- Antxiñakoen oroigarri
- Gazteen ikastegi
- Aretxabaleta'ko edergarri

EZIKETA

JUANTXU-TXIKI

Nor dan Juantxu-txiki?

Zeure seme-alabak dozuz Juantxu-txiki.

Orreik azi eta ezi, orra or zure lanik ederrena eta garrantzi audienekoa. Baita zailena eta gaitxena be.

Lan ori zelan bete?

* * *

Chesterton ingles eta idazle ospetsuak onelan galde egin eutson Urlia jaunari:

—Juantxu-txikiri latiña irakatsiko ba'jako, zer da irakasleak lenengo ezagutu bear dauen gauzea?

—Latiña irakastekotan, latiña izan bearko da gauza ori...

—Ez, jauna, Juantxu-txikiri latiña irakasteko, Juantxu-txiki berbera da irakasleak lenengo ezagutu bear dauan gauzea.

Juantxu-txiki zer dan ez ba'daki, zelan moldatuko da Urlia jauna zerki orreri latiña irakasteko? Ez dau jakingo nondik ekin buru aretan latiña sartzeko, naiz-eta latiña ondo jakin berak.

* * *

Gurasoek Juantxu-txiki ezi bearko dabe; baiña, ori egin aal izateko, eta Juantxu-txiki ezitzen asi orduko, aurra ezagutzen alegindu bear.

Ez da lan erreza.

Juantxu-txiki gauza ezberdin askoren batasuna dogu-ta: mineralak baditu beragan, goruntz zugaitzen antzera azten da, animaliak lez mogitzen eta sentitzen, aingeruek lez pentsa eta maite...

Ezaupide orren bidetik egin dagiguzan alkarrekin urrats batzuk.

* * *

Asieratik esan bear doguna auxe da: zer ez dan Juantxu-txiki.

Juantxu-txiki ez da gizon koskor bat.

Ez dala gizontxu bat, algia: ez dala zure antzeko eta bardiñeko bat neurri murrizagoan, neurri motzagoan.

Ez, orixe.

Ezkurra ez da aritz txiki bat.

Arrautza ez da txori txiki bat.

Xomorroa ez da tximelet txiki bat.

Aritza ezkurretik sortuko da; baiña, ez da aritz txiki bat gure ezkurra. Txoria arrautzatik eta tximeleta (pinpilinpauxa) xomorrotik; ez dira, baiña, gauza bardiñak.

Umea ez da gizon txiki bat.

Ume orretatik sortuko da gizona egunen batean; baiña, gaur ez dira bardiñak umea eta ume orrengandik sortuko dan gizon-emakumea, guk askotan alan uste izan arren.

Aurra ez da gizona edo emakumea, egunen baten gizon-emakume izatera elduko diran indar eta aalmenak baiño. Gaurko indar oneik ekarriko dabe biarko gizon-emakumea...

* * *

Gaurko umea, biarko gizon-emakumea.

Baiña, gaur, ume oraindik.

Gu lakoa ez dalako, izaten doguz ainbeste eragozpen gure umea ezagutzeko. Ezagutu nai ba'dozu, begira atzeraka zure ume-denporara.

Zelakoa ziñan zu orduan; alakoa da gaur zure Juantxu-txiki.

Zure bizitzan atzera joan ezin ba'dozu, entzun besteak zer esaten dautzuen eta irakurri zer idazten daben. Zuri laguntzearren saiatuko gara.

Ez aaztu, ba, ezaupide ori lortzeko biderik onena zeure barruan dozula.

EKIÑALDI BARRIA

Iragarrita egoanez, ZER'tarrak 100n. ZER'en ospakizuna egin dabe Zornotza'ko Larra'n, aurtengo irail onen 20n. egunean, poz eta itxaropen-giro ederrean.

Lenengo, amaiketan, Mezea egin genduan Olazar, Kerexeta, Zubikarai eta Paulin meza-emoille eta Bizkai'ko bazter guztietatik etorritako ZER'tarrak eleizan zirala.

Bere sasoiari, Meza-barruan, Aitaren Etxera joandako ZER'en laguntzailleak gogoratu genduzan: Matai Argintxona, Julene Azpeitia, Manuel Estonba, Andoni Landa-juela eta Uxola.

Meza-ostean Zubiri'tar Iñaki EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Zuzendariak egin eban bere itzaldi labur eta egokia.

Urrengo, Olazar'tar Martin ZER'en Zuzendariak ZER aldizkaria aztertu eban, len orain eta gero zelakoa izan dan edo izan bear dan agertuz. Idaz-lanak bear diran beste etorten dirala esan eban, baiña ez larregirik. Baten batzuk ZER aundiagoa egitea eskatzen ebela be gogoratu eban, baiña bera ez zan agertu orren aldekoa; landarea ez dala aundiagoa egiten orrietatik tiraka ibilliaz esan eban.

ALKAR IZKETA

Berbaldi bi orreik amaitu ondoren, alkar-izketa arduratsua izan zan eta ona emen labur-labur agertutako burubideak.

ZER aundiagoa ateratzea ez litzake lan gaitxa, orri batzuk beteteko naikoa litzake Euskalerrri osoko idazleen barriak, banaka agertu, etan euren idaz-lanen zati batzuk aztertzea ta azaltzea. Gaiñera ZER'ek irudien aberastasuna bear dau eta komik batzuk be atera al izango litzakez, orretarako EUSKERAZALEAK saritu dauzan marralarien laguntza artuta. Euskalerrriaren kondaira be, aldirik aldi eta urrengorik urrengora agertu lei.

ARPIDEDUNAK

ZER'entzat bearrezko gauzea da arpidedunak ugari-tzea. Onetan zerbait egiten da, baiña gitxi.

Zelan lortu ori? Zelan lortu gure ZER eltzen ez dan Bizkai'ko ainbeste erritara eltzea?

Beste bide batzuk aztertu ondoren, auxe izan zan egoiki lez artutakoa: Langille bat artu, ordainduta, orretarako eta joan daitela erririk erri ZER eskintzen. Bear ba'da beronek egingo leuke arpidetzat kobratzearen lana be.

OBETZEA

Gero gure ZER zelan obetu leiken aztertu zan alkar-izketan, eta burubide oneik agertu ziran: Errietako barriak agertu, Euskalerrriko ta munduko barririk garrantzitsuenak euskal-ikuspegiagaz idatzi, azaleko ta barruko irudiak ugaritu ta apaindu... Azkenengo arlo onetan Gazteiz'ko Gereño argazkariak emongo leukela laguntza ona esan zan: argazkiak millaka bere eskuartearen daukaz eta askotarikoak dira. Argazki orreik ez galtzekotan gertu legoke eskintzeko.

Irar-utsak alboratzeko bide bat eskiñi eban Kerexeta'k: "ordenadoreen" bidez lan ori eginda eroatera. Orretarako langille bat aurkitu bear litzake eta ez litzake gauza gaitxa izango, lan barik dagozenak ainbeste diran ezkerro.

JARRAITU

Asmabide oneik betetea ez da beti erreza izango, baiña bai beintzat aurrera jarraitzeko gogo bizia argi agertu zan.

Bizkai'ko euskerea ain egoera larrian ikusten dogun aldi onetan, gure idazleak gertu aurkitzen dira lan au aurrera eroateko. Ikusiko dogu noiz arte, baiña gaurkoz gogotsu eta adoretu aurkitzen gara. ZER'tarrak aurrera doaz.

Amaitzeko Anai-arteko bazkaria egin zan eta Paulin bertsolariaren eta olerkariaren bertso saillea abestu zan, batzuk ZER goratzen eta beste batzuk Lauxeta'ran omezez.

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (eta XVIII)

Lenago esan dodan lez, lenengoan, ametralladorentzak abiak egiten ibiltzen giñan Gaintxurizketa'n. Geroago, berago joanda, barraka batzuk egin genduzan Ilbistieta baserri aurrean; ez dakit gudarien edo gu lako langilleentzat bizi toki izango ziranak. Eta gaur Ilbistieta azpian ikusten dan beribil zarren ilerrian dagoan elizatxo erdi jausia be orduan egin zan, gu andik joan eta laster.

Udabarri erdi inguruan toki areik laga bearra izan genduan. Egun baten, geure maleta ta abar artuta, Oyartzun eta Lesaka bitartean dagoan mendi batera, Arritxulegi izenez ezagutzen dan tokira, eroan ginduezan. Edo zuzenago esateko, eroan ez, joan egin giñan, oiñez. Gaintxurizketa'ko Arriandi baseritik Oyartzun'dik zear mendi gain aretara amabi-amabost kilometro inguru egongo dira. Ordurarteko ibillaldirik luzeena izan zan.

Gain aretan, gu joan giñaneko, txabola batzuk ba-egozala uste dot baiña geiago bear ziran eta geuk egin genduzan. Bedarra egoan lurra pikotxagaz zatiak ebagi ta lur zati areik ladrilluak ipinten diran legez alkarren gainean ipiñi, neurkin bat edo geitxoagoko goruntzkoa emon eta ojalatazko teillatua emonaz, eginda egoan. Lau-bost neurkin kubiko inguru eukiko zituan gure txaboleak bostsei lagunentzat. ¡Bizi toki landerragorik!

Uda a euritsua izan zan eta bein udazkena urreratu zanean gabaz otz egiten eban. Erdaldunak, denporeagaz, euren txabolak egokitzen alegindu ziran; goruntzkoa geitu, sua ipiñi ta abar. Kontixu, len be lur azpiko etxeen barri ba-ekien eta ez jaken ereizten ain txarra bizi toki a. Gu euskaldunok ostera, ezin ta ardurabakoak giñan; ituxurak kentzeko be ez giñan. Lo gengozala euri zaparradaren bat asi ta tak-tak ura baetorren barrura, burua mantaz estali ta lo. Gaurko kanpiñen antzera egozan gure itxurabako txabolak.

Arritxulegi'ko tunela egitea zan gure lana. Oyartzun'dik Lesaka'rako bide-zabala "trabajadorietakoak" egin eban. Gu joan baiño len eginda egoan Oyartzun'dik Arritxulegi'raiñokoa. Beste aldetik etorrena, Naparra aldetik egin bear ebena, ikusi be ez zan egiten.

Gain a Endaya'tik ikusten da ta Prantzia'gaz gudea izan ezkerro txarto egoala ta beratxoago tunela egitea erabagi eban; eta tunel a egitera eroan ginduezan.

Gure lanak abiada andirik ez eban eroan. Lanean ez giñan geratzen eta lurra naikoa atara genduan; baiña ni an egon nintzan lau illabete inguruan aterperik ez genduan egin, zerurik ez genduan eskutau.

Lenengoan, beti lez, pikotxagaz lan egiten neban; gero bagoneteagaz lur karriaten. Bagoneta bakoitxagaz lau edo bost lagun ibiltzen giñan. Zamauta, eun neurkingo bidean, apur bat beruntz eroaten zan gurdia, an mendian bera ustutzeko. Eroatea barik geratzea izaten zan lana, abiada andia artzen baeban, geratu ezinda, burdin bidea amaitutakoan, mendian bera iges egiten eban da. Egur andi bat burbillean ipiñi, egur gainean mutil aztun bat edo bi jarri (exeri) ta besteok bere aurka bultz egiñaz geratzen genduan gurdia.

Baten, lanera joan giñanean, gure lagun batzuk denpore apur bat luzatu eban; bi gengozan laneko tokian gure gurdikoak eta ez indartsuenak eta aztunenak. Alan be geuk bakarrik eroaten ete genduan asi egin bear giñala ta asi egin giñan gurdi beteagaz. ¡Asi bagiñan asi giñan! Urten orduko gero ta abiada andiagoa artzen asi zan eta gure alegin guztiak gora-bera ez zan geratu ta an joan zan mendian bera zalaparta bizian. ¡Andik jasoten izaten ziran kontuak!

Kaboa etorri zan bereala ta zelan jazo zan itandu euskunean, egia esan geuntsan. Geu bakarrik gengozala ta eroango gendualakoan asi giñala baiña ezin izan genduala geratu. Kaboa, gure aurka barik palta ziranen aurka jarri zan; antxe egon bear zirala, lanari asierea emonda egoalata. Ta andik laster sarjentoa etorri zanean kabopak berak berba egin eban, palta ziranai errua jaurtiaz. Kaska-motz ulea ebagiteko zigorra emon eutsen.

Ni, ausartu be ez nintzan egiten eurai arpegi emoten, geure erruz, ez asmo txarrez, buru soil laga zituen da. Naiago neban neu be eurak lez laga banindun.

Baiña orduan nai baneban be, gero nai ez nebala ebagi eusten ulea.

Lenago be esan dodala uste dot. Ez genduzan agintari gaiztoak. Orratio, baten, zital antzeko sarjento barria etorri jakun, bere sudur-azpiko zorrotz eta guzti.

Gozaldu ta formautera joan artean ez zan prisa andirik izaten eta nai ebanak, arpegia garbitzeko lain asti artzen eban. Sarjento barria etorri zanean, ni, gozaldu nebanean beti lez arpegia garbitzen asi nintzan. Baiña berealako batean inguruko jendea askutau zan. Ta aringa-aringa joan nintzan formauteko tokira. Ni niñoian azken ta ia formauta egozan orduko, lerroan jarrita eskuak aurrekoen lepoetara luzatuaz. Sarjentoa nigaz konturatu zan eta didarka asi jatan.

—¿Qué, usted no lleva ninguna herramienta?

Arrituta geratu nintzan itaun aregaz, ordurarte formaziñoira laneko tresnarik ez genduan eroaten da. Baiña egun aretan, zelan joan bear zan jakitun ipiñi eban jendea norbaitek eta danak eskuetan palea, pikotxa edo zerbait tresna eukela egozan. Neu bakarrik esku utsik, ezer nire belarrira eldu ez zalako.

Zer erantzun ez nekiala geratu nintzan eta barriro sarjentoak:

—Bueno, usted va a cortar el pelo a cero.

Ta gero formaziñoiko kontuak amaitu ziranean, nigaz egitekoa aztu barik egiteko kaboari esan eutsan.

Ta alantxe, bereala bizar kentzaillearengana joan eta buru soil geratu nintzan.

Bein, eztabaida polita izan neban extramaduratarategaz. Jostuna ei zan bizi-bidez; ikasi naikoa zan, ba-eukan kultura zaletasuna. An, lagunak giñan. Bera be orduan bagoneta eroalea zan eta egun baten, geroan gurdi arek zenbat zama eroaten ete eban jardunean asi giñan. Nik ez dakit zelan, neurkin kubikoaren iru laurdena aitatu genduan. Berak orduan, zabaleran, luzeran, eta goruntz neurkin iru laurden izan ezkeru, neurkin kubikoaren iru laurden zala aren tokia esan eban. Nik ezetz. Baietz berak, ori argi egoala ta. Ziur-ziur nekian gauzea ukatzen eustanean, buruari esku biakaz elduta olakorik ez esateko, esaten neutsan eta lapitza eskatzen neban, iñok baeukan. Danak, ingurukoak jakiña, guri begira egozan, “injenierotako” sarjentoa be bai. Ez eban ezer esaten baiña aren esanai fede geiago emoten eutsala uste dot, lojikoagoak zirudielako. Iñok ez eukan lapitzik eta nire lagun jostuna ez egoan niri entzuteko, lelokeriarik ez ebalako entzun nai, esaten ebanez.

Ta argitu barik geratu zan auzia.

Arritxulegi'n egon giñan denporan Tapia Mitxelena abizenak eukazan oyartzuar gazte bat eta Ondarrabia'n ango bategaz ezkonduko Ortiz abizeneko asturiar bat lagundiko sua egiteko egurretan ibiltzen ziran.

Lenengoak ez ekian erderarik tautik bere. “Si” ta “no” esaten jakingo eban baiña geiagorik ez dakit. Sekula erdal itzik, ezta bakar batik be ez eban urten aren aotik.

Ortiz'ek ba-ekian euskera apur bat. Ta baten polita jazo jatan beragaz. Nik neure bizi guztian euskerea beste konturik ez dot izan ta an be, baten, ba-nebillen euskerea gaia aotan artuta zerbait esaten ango bat edo besteri. Ta zenbakiak zelan ziran irakasten nenbillela “cien” “egun” zala esan neutsen. Ortiz a alboan egoan eta ezetz, “eun” esaten zala berak esan eban.

Nire uts arek ba-eukan edo ba-dauka bere azalpena. Ondarru'n geienetan jan egiten dogu “g” ta olan “eun” itzak be uts ori izango ebala uste neban.

Nire uts aregaz arrotu egin zan asturiarra ta nik baiño geiago ekiala euskeraz esaten eban.

Ta, len eten dodan aria lotuaz; baten, bestetan lez basoan egurretan ebiltzala, jausita egoan zugatz zar bateri, lurrean sartuta eukan adar ondo ebagiten asi zan Ortiz beko aldetik eta ebagi eban zugatza bilinbolaka gaiñera joan jakon eta bernalzakia ausi. Ez naz gomutaten zein aldetakoa.

Orduan, osagille ikasten egondako madritar gazte bat zan pratikantea ta ol zatiak-eta loturik alik-eta ondoan ipiñi eutsan eta lau lagun artean andan artuta eroan eben oiñez Oyartzun'era.

Lagundiko agintariak, sendagillea eta beste batzuk be bai, Oyartzun'en egoten ziren eta Ortiz'ek miña zelan artu eban esan bear eutsan sendagilleari basoan bere laguna izan zan Tapia'k. Baiña ez ekian erderaz len esan dodan lez eta bitarteko edo interpretetzat neuri deitu eusten. Pozik jarri nintzan zeregin aretarako, bada gure batalloiko osagillea ondarrutarra edo erdi ondarrutarra zan, Arrasate itxas kapitanaren semea. Ta iñoiz Eduardo nitzaz berari berba eginda egoan. Beintzat, bein, ea zegaitik pratikante jarri nai ez neban Arrasate'k itandu eutsala berak Eduardo'k esan eustan. Barriro be ba-diñot; pozik joan nintzan Oyartzun'era ea zerbait on ataraten ete neban. Au da, mendiko lanari iges egiteko bidea egiten ete neban.

Lagundiko Plana Mayor deitzen geuntsan tokira eldu giñanean apaltzen egozan gudari ofizialak eta gure zainzaille eroan genduan gudaria sartu zan zetara giñoiazan esatera. Baiña, Arrasate osagilleak ez eukan guk geroan auziari jaramon andirik egiteko gogorik eta ezer esan barik Arritxulegi'ra biurtu giñan. Bear bada, an kanpoan ondarrutar bat egoala bere zain jakin izan baleu, deituko euskun.

Gu langille batalloian sartu giñanean alik-eta ariñen etxera joan gindezan lanean asi ziran gure sendikoak. Teodoro'ren arreba Maria Anjeles eta Eduardo'ren anaia Sabas'ek, donostiar bat lagun ebela, osterata baiño geiago egin eben komandantearengana. Oiñetako eder batzuk, botak, erregalau eutsezala be entzun neban bein. Baiña ez eben zuritu. Ondo artuko zituan komandanteak kontixu, ondo berba egin be bai, laster urtengo genduala ta itxaropena emonaz.

Baiña betiko ez egoan an iñor eta geuri be etxera etorteko eguna eldu jakun. Nik uste dot, idazkaritzan egoan Ortega abizeneko irundar baten lana izan zala gu aske bialtzea. Ba-ekian gurekoak komandanteagaz berba eginda egozana, ta baten, geu be urten bear ebenen izen zerrendan sartu ginduzan. Olakoetan, batalloi guztia formaten giñan eta aske urten bear ebenen izanak esaten zituen. Egun aretako izen zerrendan neu be tartekoa nin-

GUDALDIA

tzala jakinda nengoan baiña azken samar esan ninduan da, guzorra sakatu ete eusten be egon nintzan neure izena entzun arte.

Nire batalloia beti ez zala bat izan uste dot. 1939'garren urtean Ariskun'era joateko egin zana ez dakit zein zan, baiña gero egon nintzana bai; ara itzez-itzez zer ziñoan aske etxera bialdu ninduean emon eusten agiriak:

D. Victoriano Fernández Orio, Comandante de Infantería y Jefe del Batallón DISCIPLINARIO núm. 87,

CERTIFICO:

Que JOSE MARIA ECHABURU ECHABURU, hijo de Ezequiel y de Prudencia, natural de Ondárroa, provincia de Vizcaya, del reemplazo de 1933 (M), incorporado a este Batallón el cinco de Febrero de mil novecientos cuarenta.

... marcha libertado en virtud de Orden número 19.267, Sección 1.^a-2.^o, de fecha 11 de Mayo de 1940, de la Inspección de Batallones de Trabajadores, fijando su residencia en Ondárroa, provincia de Vizcaya.

Y para que conste, expido la presente en RENTERIA, a veintitrés de Octubre de mil novecientos cuarenta.

Nik azkenengo denpora areitan praktikantearen txabolan lo egiten neban, botikiñean. Aurreratxoago madritar gazte bat izan zan praktikante; lenago edestu dodan Ortiz izeneko asturiarrak min artu ebanean be bai. Baiña ez dakit zegaitik, kendu egin eben eta orduan Enkartaziñoietako bat egoan. Ta toki aretan birentzat egoan etzin tokia ta neuri deitu eustan berari lagun egiteko.

Madritar a Errusia'n egondakoa zan tankeak erabilten ikastera joanda. Ta berak esan eustanez, gorriak, geiago ezin eutsita, Madrid Franco'ren eskuetan uzteko eratu zan Casado'ren Gobernuaren aurka ango kaleetan gudatu ei zan tankeagaz azkenengo une arte. Gaztea zan urtez, eta gogoz be bai. Alaia zan, berbalduna, neska zalea. Bera, be arpegiz, edozein neska baizen polita zan. Ez eban gizonezkoaren arpegirik, emakumearena baiño. Errusitar berbetea apur bat ekian, edo ekiala esaten eban; eta berak niri axe irakatsiko eustala ta nik berari euskerea, bein baiño geiagotan alkarrei esan geuntsan.

Bestea, orduan praktikante egoana, Enkartaziñoietakoa zan; Bizente izenez. Ixil-ixilla zan, apala, zintzoa. Komunista zan eta España gudaren baten sartu ta beste aldean errusitar gudarosterik arkitzen bazan bera areingana igaroko zala esan eustan. Ama asmo orren jakitun ipiñita eukala.

Ordutik gitxienez amabost urtera ikusi neban baten bultzian. Neu beragaz konturatu nintzan arte ez zan ausartu niri arpegi emoten. Errenderia'ko bategaz ezkon-duta egoala esan eustan eta andrearen errian bizi zala. Bere emaztea euskalduna ta eliztarra bada zerbait aldatuta egon leiteke.

Etxera aske urten bear neban aurreguneko gabean despeida txiki bat (al nebana) egin nai izan neban neure lagunakaz. Oraindik gaztai bi ba-neukazan etxetik bialduta. Beste zerbait ere egon eitekean. Ta ogia ta ardua erosi ta antxe, botikiñean, egin genduan adiskide arteko azken jatordua.

Orduko nire lagunak, len aitaturako praktikante biak, Bilbo aldeko len aitatu dodan Josetxu ta besteren bat ziran. Danak gorri-gorriak; eurak eta ni politika eretxietan guztiz desbardiñak izan arren, adiskideak giñan.

ETXERA

Biamonean goizean goiz oiñez urten genduan Errenderia arte. An Plana Mayor'eko inguru baten formau giñan eta komandanteak danon izenak irakurriaz askatasuna emon euskun.

Eduardo be etxerako zan eta aldi bateko Errenderia'ko tranbia zurietako baten sartu ta Donostia'ra joan giñan. Bidean ez zan ixildu abestuten Eduardo. Burgos'era txapel okerrakaz giñoiazanean abestuten joan bazan ez zan arri-tzekoa aske giñoiazala abestia ta alaitasuna gaiñezka izatea. Tranbiako jendeak igarri euskun aske giñoiazana ta euren itaunari, baiez, alantxe zala esan geuntsanean, zoriondu egin ginduezan.

Donostia'ra eldu nintzanean ixiko Prantziska'nera joan nintzan. Antxe egon nintzan arratsalde arte; ta amari ez gaztigatzeko esan neutsan Mertzedes arrebeari.

Bat-batean, ezer ez ekiela sartu nai neban etxean. Arratsaldeko seirak ogei gitxiagotako bultzian urten neban Donostia'tik Ondarru'ra zazpi t'erdietan eltzeko. Gaba eginda egoan orduko ta iñok ikusi edo ezagutu barik etxera eldu nintzan.

Komeria txiki bat egin nai neutsan amari. Atea jo neban eta amak berak iragi eustan. An ate ondoan erdi illun egoan eta abotsa be-beian ipiñita olan itandu neutsan

—¿Aquí vive José María Echaburu?

— ¡Eh!— egin eben, zer itaun da ori, esan nai baeban lez Baiña bereala ezagutu ninduan eta txilio andi bat egin eban eta auzoko guztiak, goikoak eta albokoak, zer jazo ete zan ikaratuta, euren ateetara urten eben.

— ¡Oi, Jose Mari etorri da!

Ta bereala etxe gutzia auzokoz bete zan. Ete dana zan besarkatzea ta nire ama zoriondutea, ainbat bidar aitatu-

tako semea, lau urtean beragaitik ainbat kezka izan eta negar egin eban bost alabaren arteko seme bakar maitea etxeratu jakolako.

(Amaia)

ETXABURU ETXABURU'TAR JOSE MARI
(Kamiñazpi)

LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «**EUSKERAZALEAK**» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de «**EUSKERAZALEAK**».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

| | |
|---|--------------|
| Nora Zoaz | 350 laurleko |
| Giza Soiña | 350 » |
| Iniciación al Euskera | 350 » |
| Irakurgai errezpolutak I | 100 » |
| (Zenbat Urte) | |
| Irakurgai errezpolutak II | 200 » |
| (David Copperfield) | |
| Aurtxoa II | 100 » |
| Eginkizunak I | 100 » |
| Eginkizunak II | 100 » |
| Eginkizunak III | 100 » |
| Euskal Irakasbide Laburra | 400 » |
| (Gramática X. Peña) | |
| Euskal Irakasbide Laburra, 3 kaseta | 1.000 » |
| (Gramática X. Peña) | |
| Diccionario Ikas | 500 » |
| Ipuiñak | 350 » |

EUSKERA IRAKASKUNTZAN

AURREHISTORIA

Euri apur bat izan dogu Euskalerrian Humboldték iñoanez eskolan edo eskolatik kanpo euskeraz egiteagaitik, berbaren batek urten ezker bere, umei ezarten jaken eratzunaren denboretatik ona. 1801-ean Humboltek batu ebana gure gurasoei eurei jazorikoa bere badala esan bear. Neure amari ain zuzen.

Bonifacio de Echegaray-k dakarrenez “eskolan ikasi dabe ume euskaldunak ez euskerea aazten bakarrik, baita kultur arduetarako balio gitxiko lez baldres eta traukil-tzat joten be. Eta ez da gaurkoa edo atzo goizekoa jasarp- en iraingarri ori, eta ez dira kanpotarrak bakarrik gure izkuntza maitagarriari onelako iraina egin deutsienak”.

Eskola umei euskeraz egiteagaitik eratzuna edo an-tzekoa ipinten jaken denborak joan ziran, baina bidea ez da erreza eta laburra izan.

José Pablo Ulibarri zinegotzia dogu pasa dan mendean aurrelari. Aalegin andiak egin zituan euskerea arlo ofizia- letan sartzeko eta “euskerea onartuko eban euskal eskolak sortzeko” Aita Fermin Iraolagoitiak egiten diarduan tesian irakurri leitekenez.

Naiz eta amaikatxu negar egin azkenean Ulibarrik lor- tu eban zeozer: Bilboko Institutoan Bizkaiko Batzar Nagusiak 1841-ean Euskal Katedrea ipintea.

Gaur eguneko askatasun bideak eta oinarriak ezarri zituan mendea ez zan, ostera, egokia izan euskaldunen nortasuna aurrera eroan edota indartzeko.

Bizkaiko Aldundiak iñoanez “Gobernuaren elburu eta asmoa, probintzia oneetan apurka apurka bertoko berezi- tasunak galdu eragin arteko barrikuntzak sartu eta Errei- nuko beste lurraldeetakoekin bardintzea da”.

Denborak aldatu arren jokerak ez dira osoan aldatu: bizirik dogu geure artean bere asmo hori.

ABERTZALETASUNAREN MOGIMENDUA

Abertzaletasunaren sorreran dagozala esango neuke gaurko euskal eskolearen iturriak. Sabin Aranarentzat aberria eta euskerea lotuta doaz. Euskerea ondasun kultu-

rala da, aberritasunaren ezaugarri eta ardatza. Euskerea jasotea erria jasotea da eta eskolea orretarako tresna ego- kia.

Aranak bere eskolan jartzen dau euskerea galtzearen arrazoi nagusietarikoa. Maisuak euskerea izkuntza basati, baldres eta baliobakotzat joten dabela salatzen dau. Maisu erdalduna euskerearen apurtzaile eta Bizkaiaren arerio da.

Sabinek eskolan jartzen ditu euskereak iraun daian itxaropenak eta zentzu onetan proposamenak egiten ditu:

- Irakaskuntzarako erlijiosoen etxeak sortzea.
- Euskeraz ikasteko eskola normala eregitzea.
- Euskal eskualdeetan euskal eskolak sortzea eta bes- te orrenbeste uri guztietan.
- Dana euskeraz irakastea bere planteatzen zan: gra- matikea, irakurgai liburuak, aritmetika, geografia, historia.

Arana ez egoan bakarrik ekintza eta asmo onetan, Azkue eta Kanpion ditu lagun.

Ez zan orduko maisuen atseginekoa izan Azkuek ata- ra eban “Vizcaytik Bizkaira” izeneko zarzuelatxua. Bada- go gaurko jokerakazko parekotasunik: erdal eskolak kara- bineruen semeentzako gordetako eskatzen eutsen alkateei, euskaldunentzat euskal eskolak eta irakasleak eskaturik. *Sasi Eskolan* umeak zorioneko eratzuna erre kara botaten dabe.

Idea berekoa da Arturo Campion bere: aberria sortze- ko eskoleaz jabetu bear dogula diñosku. Ez da epela erdal eskolearen kontrako neurriak agintzen, sasi-eskola egitea bere eskatzen dau bien bitartean elebidun eskolea eska- turik.

Azkuek berak eskola txikitxu bat sortu eban Jardines kalean Aita Ferminek bere tesian dakarrenez. Bertan kris- tau ikasbidea, aritmetika, geografia, bertsoz eta prosaz ira- kurten eta idazten irakasten zan. Euskal gramatika bere irakasten zan. Aurreratuentzat Kondaira Santua, Euskal Historia, Euskal Gramatika, Geometria oiñarriak, marrazkia, gaztelania eta frantsesa Komertzio Eskolan sartzeko.

1904-5-ean Kristau Ikasbide Irakaskuntzarako Anaian kongregazinoa jatorku Frantziatik botata. Euren

artean laster dator euskaldun bat eta euskera irakasten asten da eskolan.

1908-an Plaza Barriko eskolak sortzen dira Euzko Gaztediaren bultzadaz.

1914-an Colon de Larreategui-ko euskal eskolak eta urte berean Donostian Muñoaren eskolak.

Egitaraua erderaz emoten zan, umeak jatorriz geientsuenak erdaldunak ziren ezkerero. Berbetan, irakurten, idazten, errezetan eta Euskalerrriari jagokon guztian: abestiak, geografia eta historian euskerea erabilten zan.

1918-tik aurrera Eduardo de Landetak eta Eusko Ikaskuntzak euskal eskolari oiñarri teorikoak jartzen deusiez baiña fruturik ez zan ikusi girorik ezean.

Erakunde abertzaleen eragiñez sortzen dira mende onen asierako aaleginik andienak: Euzko Gaztedik euskera eta euskal kultura klaseak ditu elburutzat umeen alkar-teak sortuaz batera.

Gaztetxu batzak umeentzako euskera klaseak, dantzak, abestiak eta euskal historiazko ekitaldiak antolatzen çitu.

II ERREPUBLIKA DENBORAKO BULTZADAK

II Errepublika denboran sortzen da bultzadarik andiena eta era berean aurreko aalegiñen frutua.

Euskalerrria euskalduntzeko oiñarrizko eskolearen bidez Landetak iñoanez tresna bat da bearrezko, Estatu-tua.

Elburu orretan mugitzen dira ainbat euskal indar katalanen bideak urratu guran. Baina bien bitartean zeozer egin bear zan eta 1932-an Eusko Ikastolen Batza sortzen da, Emakume Abertzaleen Batzak orretan zer egin andia ebalu. Hutsuneak nabariak ziran: ez egoan ezkuntza plangintza teorikorik ezta euskeraz irakasteko material andirik bere. Baiña leenengo oiñarriak jartzen dira: Eusko Esko-lea abertzalea eta kristrinaua izango da, euskerea irakatsiko dau eta euskal giroa sortzeko aaleginduko da; euske-rearen çzaguera eta erabilerea errezteko bideak urratuko ditu.

Zornotza, Bergara, Elorrio, Galdakao, Durango, Gernika eta Sondikan ume euskaldunentzako eskolak zabal-tzen dira. Gai guztiak euskeraz irakatsiko dira naiz eta erdereza bere irakatsi. 9 urterarte euskeraz bakarrik irakas-tea gomendatzen zan.

Getxo, Areeta, Portugalete, Trapagaran, Barakaldo, Errotatueta eta Belostikalen erderazko eskolak egin ziran baiña agurrak, oarrak, jolasak eta abestiak euskeraz egi-nik.

Baina ondorioak ez ziran bardinak, gaurko auzi bera zan orduan bere. Ume euskaldunakaz ondorio onak atara-ten baziran bere, erdaldunakaz, ostera, gauzak ez joazan ain ondo. Errua gurasoen ardura eza eta erdal giroari bota ei eitekion. Beste paralelismo bat sortzen da emen bere gaurko egoereagaz.

Egoera onetan 1935-36 ikasturtean elebitasuna barriro eratu zan:

- Guraso euskaldun eta erdaldunen estadistikea eratu.
- Eskualde euskaldunetan ikasleak euskeraz pentsatu, berba eta ikasi bear eban.
- Arazoak ziran konpontzeko
 - textogintza
 - arazo dialektalak
 eta iztegiarenak: orretarako iztegi teknikoak, neolo-gismoak etabar sorturik
 - irakasleak euskaldundu
 eta alfabetatu.
- Euskera utsean irakasteko erabakia artu zan.

Baiña 2. errepublikeak bere ez eban luzaro iraun. Gerra osteko denborak latzak izan ziran euskeraren erabi-lera eta batez bere irakaskuntzari buruz.

Baiña 1941-ean bertan hasi zan Elbira Zipitria bere lan ezkutuan Donostian zear etxerik etxe, klase partikula-rrak balira legez, 10 bat umegaz talde bakoitzean.

Ikastolen azi ziran Elbira Zipitriaren eskolak 1960-tik gora euki eben gorakadea.

Bizkaiko ikastolen historiatxua egikeran ezin leitekez aaztu Xabier Peña eta Julita Berrojalbizen izenak. Biok asten dira Elbira Zipitriaren bideetan eskolak isilean emo-ten.

San Nikolasen ikastolea sortzea otu jaken. 1957-ean 13 umegaz asi ziran eskolako ordutegia beterik. Baina bigarren ikasturtea asi orduko zarratzeko agindua etorri jaken. Andik Iralabarriko komentura. Baiña emen bere gauzak arin ondatu ziran, eta zelan! agintaritzaren esku gogorraren bitartez. Diru zigorrak, pasaporteak kendu... 48 ume zituen eta lau andereño.

IRAKASKINTZA

Donostiko eran etxerik etxe (14) ibili ziran 100 ume inguru euskeraz ezi guran Irakaskuntzak euskera utsean egiten ziran kolegiara pasatzeko orduan erdereira irakatsiaz.

Ikastolen gorakadea 4 euskal errietan 1960-tik gora sortzen da (Ikusi 1. laukia).

IKASTOLEN SORKUNTZA ETA BERORIEKIN KOPURUAREN EBOLUZIO AKUMULATIBOA

| | 1960 | 1961 | 1962 | 1963 | 1964 | 1965 | 1966 | 1967 | 1968 | 1969 | 1970 | 1971 | 1972 | 1973 | 1974 | 1975 | 1976 | 1977 | 1978 | 1979 | 1980 | 1981 | Guzt. |
|----------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------|
| ARABA | - | - | - | 1 | - | - | - | - | - | - | - | 1 | - | 2 | - | 2 | 2 | 8 | 4 | 8 | 1 | - | 29 |
| GIPUZKOA | 3 | - | 2 | 3 | 4 | 5 | 11 | 9 | 6 | 10 | 8 | 7 | 2 | 1 | - | - | - | - | - | - | 6 | - | 77 |
| NAFARROA | - | - | - | - | - | 1 | - | 1 | - | 2 | 3 | 2 | 4 | 1 | 5 | 3 | - | 9 | 8 | 2 | 1 | - | 42 |
| BIZKAIA | - | - | - | 2 | 4 | 4 | 1 | 5 | 5 | 6 | 4 | 2 | 4 | 8 | - | - | - | 9 | 12 | 5 | 2 | -3 | 70 |
| IPAR EUSKADI | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 1 | 2 | 4 | 5 | 1 | 2 | 1 | - | 1 | 2 | 1 | 2 | 2 | 24 |
| GUZTIRA URTEKO | 3 | - | 2 | 6 | 8 | 10 | 12 | 15 | 11 | 19 | 17 | 16 | 15 | 13 | 7 | 6 | 2 | 27 | 26 | 16 | 12 | -1 | 242 |
| GUZTIRA AKUMULATIBOA | 3 | 3 | 5 | 11 | 19 | 29 | 41 | 56 | 67 | 86 | 103 | 119 | 134 | 147 | 154 | 160 | 162 | 189 | 215 | 231 | 243 | 242 | 242 |

Siadeko: 1976 arte
Ikastolen Federazioak: 1981 arte

(JAKINen artuta)

1964-65 ikasturtean ikastoletako umeak:

| | | |
|-----------|-----|--------------|
| Araban | 22 | ikasle ziran |
| Gipuzkoan | 520 | |
| Bizkaian | 85 | |
| GUZTIRA | 627 | |

1974-75-ean barriz:

| | |
|-----------|--------|
| Araban | 1.026 |
| Gipuzkoan | 17.971 |
| Bizkaian | 5.822 |
| Nafarroan | 1.892 |
| Ip. Eusk. | 225 |
| GUZTIRA | 26.936 |

1984-85:

| | |
|------------|-----------------------------------|
| Araban | 6.500 |
| Gipuzkoan | 40.221 |
| Bizkaian | 20.100 |
| Nafarroan | 6.210 |
| Ipar Eusk. | 718 |
| GUZTIRA | 73.739 (Aita Fermin Iraolagoitia) |

(Eskolaurre eta OEO ez diran ikas mailakoak barruan dagoz)

1970-tik aurrera ikastola asko irakaskuntza ertainetara bere zabaltzen dira. BUP, COU, FP era oraintsu REM era. Konstatazioen artean fenomeno urbanoa dala esan bear da. % 75 baten 4.000-5.000 biztanletik gorako urietan jarrita 1970-etik gora beste konstatazio bat egin bear da. Orain arte kopuruz nagusi izan dan ume euskaldunak lekua laga bear deutso erdaldunari. Gerra aurrean eta Bizkaiko Ikastolen Batzak aurrerago egiñiko bereizketea ez da onartzen orokorrean eta ume erdaldunak euskaldunen ereduari sartzen dira eta onek dakarzan oztopoak gainditzeko murgiltze osora jotzen da. Murgiltze zabal eta intensibora. Ainbat ikastolatan euskalduntze prozesua urte bigaz asten dala.

Alan eta guztiz bere egia biurtzen da entzun nai ez dana: umeak berealaxe ikasten dabela erderaz eta euskera ez ain bizkor.

Elebitasuna beste alde batetik sistema biak ondo bananduta eukitean datza osoa eta benetakoa izatekotan. Emen arrisku bat sortzen da: bananduta egon bearrean alkar kutsatuta eukitea. Zoritxarrez euskerearen kasuan auskerearen sistema kutsatzen da eta ez alderantziz. Batek baino geiagok diño M. C. Garmendiak lez "izkuntza mixto"ren bat sortzen ez ete gabilzan.

Irugarren konstatazinoa irakasleen prestakuntzari jagoko: sarri askotan irakaslea euskalduna izatea naikoa izan da, euskeraz egitea, zelang euskalduna dan neurtu barik.

Mackey, W.ek diñoanez ondorio txarrak edo onak ez datoz izkuntza bat edo bi irakasteagaitik, irakaslearen gaitasunetik, izkuntzazko jokera eta darabilzan metodo eta tekniketatik baiño.

Erdaldun uts eta erdera nagusi daben umeakaz lortu diran ondorenak ez dira egin diran aaleginen neurrikoak.

Mikel Lasak 1981-ean iñoanez indarrean egoan eredu, murgiltze intensibo osoarena, euskaldun uts edo elebidun orekatuentzako egokia izan leiteke. Ume erdaldun eta euskaldun desorekatuak izkuntza biak barruan jarri bearko dituen sisteman sartu bear dira asieratik. Mikel Lasak iñoanez eredu onetan elburua euskerearen erabilera instrumentalean jarri bearko litzateke.

Onelako afirmazioak egikeran umeak orokorrean artuta egiten da eta ez talde guztietan gertatzen dan eran umerik bizkorrenentzat.

Erdi mailari jagokonez garrantzi lar emon jako bearbada gai zientifikoak euskeraz irakasteari. Euskerearen normalizazinoa orretatik etorriko danaren ustean edo. Baina euskerearen gaur eguneko egoeran berezko berba egitea, kultura orokorraren adierazpen eretan aalegintzeak premina andiagoa eukiko leuke.


Euskal ereduak Eskola publiko eta pribatura pasatzen diran une onetan sortzen dira orain arte irakaskuntzako euskalduntze-alfabetatze ia prozesu guztia, seminario eta erlijioso etxeak aaztu barik, leporatu dauen erakundeen erreflexioa sortzen da.

Gipuzkoako 56 ikastolatan egiñeko azterketeak adierazo dauenez onelako erantzunak emon dira ume euskaldun eta erdaldunei:

| | Ikastolak | % | Ume-kopur. | % |
|---------------------------|-----------|------|------------|------|
| Euskal-erdal alkarrekin | 24 | 42,8 | 11.360 | 29,9 |
| Banan | 22 | 39,4 | 18.342 | 48,4 |
| Banan, baiña erd. B ered. | 10 | 17,8 | 8.219 | 21,7 |

Ikusi daitekenez nabaria da murgiltze osoan eta euskaldunen sisteman erdaldunak sartzen dituen ikastolen edo, obeto esanda, sartzen diran umeen kopurua % 48,4 banan eta 29,9 euskaldunekin batera.

Elburuak zergaitik betetzen ez diran itandu ezkerok auxe da Ikastolen arduradunen erantzuna: arrazoi nagusiak erdal giroa eta gurasoen motibazio falta dira. Pisurik gitxien irakasleen motibaziorik eza eta elburuak goi mailakoak izatea. Arrazoi nagusiak gerra aurrekoak eurak dira Ikus laukia.



1979 da Euskerea ofizialean Eskola Publiko eta pribatura pasatzeko urtea.

1979-ko apirilaren 20-koa da euskerea Euskalerriko Irakaskuntza sisteman sartzen dauen Errege dekretua.

Eskolaurre, OEO eta LE. 1. an euskerea derrigorrezkoa izango da euskal eskualdeetan, besteetan bakoitzari dagokiozan era gradu komenigarrienean.

Batxillerrean Euskerazko Katedrak eratzen dira.

Beste orrenbeste OEOko Irakasle Eskoletan.

IRAKASKINTZA

Euskeraren tratamendua Dekretu onen arabera beste edozein asinatura legez egiten da.

Baina errealitatea laster doa aginduen aurretik eta batez bere eskualde euskaldunetan ikastoletan urratutako bideak artzen dira. Ona emen leenengo datuak:

1980-81 ikasturtean Bizkaian onek dira datuak euskereari buruz

(Lengua española distinta del castellano)

| | Publikoan | Pribaduan (Ikast. barruan) | Guztira |
|---------------------|-----------|-------------------------------|---------|
| Guztira umeak | 99.564 | 76.624 | 176.188 |
| Euskera | 37.545 | 60.976 | 98.521 |

Urrengo ikasturterako (1982-83) ereduak agertzen dira leenengoz estadistika ofizialetan

| Publikoan OEO | Ikastolan | Pribaduan | Guztira |
|---|-----------|-----------|---------|
| 46.043 A ereduak | 608 | 59.315 | 105.966 |
| 4.097 B ereduak | 1.619 | 2.570 | 8.286 |
| 2.185 D ereduak | 9.305 | 792 | 12.282 |
| 43.954 X ereduak (Euskera barik) | — | 2.691 | |

Batxilerrean urte berean

| | Publikoan | Ikastolan | Pribaduan | Guztira |
|------------------|-----------|-----------|-----------|---------|
| A ereduak | 17.964 | 194 | 6.634 | 24.792 |
| B ereduak | — | 553 | 321 | 874 |
| D ereduak | 990 | 201 | 159 | 1.350 |
| X Eusk. ez | 9.841 | — | 6.756 | 16.597 |

Ikusten danetz Batxilerrean ikastolearen batezbestekoa ez da eltzen urrunetik bere OEOko kopuruetara. Ereduak ere ikastolearen barruan beste oreka bat artzen dabe B ereduaren alde. Ikastoletako ume euskaldunen jarraipena publikoan dago.

1983an agertzen dira ofizialtasun osoan ereduak leen aitaturiko egoeran, au da ikastoletatik sorturiko giroan eta eskeman. Euskerea irakastea derrigorrezkoa izango da Euskal Erakunde Atonomo ikastetxe guztietan (Unibertsidadea aparte).

Irakaskuntza A, B eta D ereduaren arabera egingo da.

A ereduaren gai guztiak euskerea bera izan ezik erderaz emongo dira.

B ereduaren izkuntza biak erabiliko dira irakasgaiak lantzeko. Irakurketea eta idaztea erderaz egingo dira, baita matematika legezko irakasgaietan.

D ereduaren alderantziz.

Ertainetan ez da B eredurik azaltzen naiz eta mailla oneko ikasleekin irakasgaiak euskeraz lantzeko erria eskeiñi.

Unibertsidadeko irakaskuntzarako legedi berezirik ez dago euskereari jagokonez bakarrik Estatutoak diñoana: izkuntza ofizial erabilera normalerako eskubidea baiño.

Orrez gairera Euskalerriko Unibertsidadearen Estatu-tuetan adierazoten danetz izkuntza biak izango dira ofizialak erdere eta euskerea.

Izkuntza bietan irakasteko edo ikasteko eta erabiltzeko edozein artuemonetan eskubidea onartzen da.

Irakaskuntzen artean OEOko Irakaslegoaren Eskolan egiten da aalegiñik andiena Euskal Filologia, Giza zientziak, Zientzia arloa, Euskal Filologia euskera utsean egiteko erria dagoelarik.

Bearrizanen arabera azken ikasturteetan euskerazko ikasleak geiengo artzen dabe. Edozein arlotan euskerea derrigorrezkoa da, asinatura moduan.

Beste fakultadeetan ez dago euskera utsean egin daiteken Curriculum osorik. (Euskal Filologian geiengo, oste-ra). Asinaturak dagoz euskeraz egin leitekezanak irakasle prestakuntza eta ikasle aukeraren arabera.

Azken urteotako garapena.

Naiz eta elbueak osoan bete ez, oraindik badagoz euskera bako ikasleak OEO eta Ertainetako Publiko eta Pribaduan, numeroak ikusita, euskerea orain urte batzuk sinestu ezineko neurrian zabaldu dala esan bear da.

205.787 umetik ia berreun millak ikasten dabela euskera esan bear da Bizkaian bakarrik OEO, Eskolaurre eta Ezkuntza Berezian.

BUP-COU n ia danak 40.000 inguruk. Beste orrenbeste LE, 24.000 inguruk.

Baiña extensioan egiten dogun lanak bear dan besteko fruturik emoten deusku?

Barriz sortzen da, OEOn nabari da, murgiltze, maximalismorako jokerea. Orduak eskatzen dira, au da irakasleak eta irakasle goa erderarako plangintza baten sortua dago. Murgiltzeok bear dan besteko fruturik emon dabe?

Ama izkuntzan irakasten daben irakasle eta ama izkuntzan ikasten daben ikasleakaz OEO % 30-etik gorako frakasoak badagoz, zer gertatuko da ikasitako edo ikasten dabilzan 2. izkuntzan irakatsi bearko daben irakasle eta gurasoak aginduta 2. izkuntzan ikasten diarduen umeakaz?

XABIER URIARTE

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1.986 - 87 IKASURTEA

EMERETZIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK : ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENÉTAN

ORDUAK : GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA : 8.500 peseta

IZENA EMOTeko . TOKIA : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14 - 2
BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

19.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS : LUNES, MIERCOLES Y VIERNES
O MARTES Y JUEVES

HORAS : MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO : 8.500 pesetas

INSCRIPCIONES : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423.53.22



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

BIZKAIERAKO IDAZTI BARRIAK

Gure euzkerak, eta batez be Bizkai'ko euzkerak, beti izan ditu etsai gogorrak eta, ez atserritarren artean baka-rik, bai-ta euzkotarran artean be eta ez gitxi ta ezjakiñak, asko ta ikasien artekoak baiño. Batzuek, euzkotarrontzat euzkerak dauan garrantzia norainokoa danik ez dakielako, baiña, beste batzuk, benetan gorrotatzen dabenak, euzko abertzaleok zergaitik eta zertarako gure izkuntza bardin-gabea berbiztu ta indartu nai dogun geiegi dakielako: Euzkotarron ezaugarririk bikañena eta beraz, beste abenderri guztietatik berezitzen gaituan nortasuna bera dalako.

Benetan, etsai gogorrak ditu gure euzkerak, batez be Euzkadi menperaturik dauken Espaiñi eta Frantzi laterri bi orreik, batzuri ez besteari ez jatorkielako ondo gurearte-ko izkuntza, euzkotarron izkera geien bat euzkera izan daiten, gure artean obeto ulertuaz gaiñera, gure nortasuna eta benetako Aberriaganako maitasuna ugarituaz batera, ludiaren aurrean ajolatsuago egiten garalako be bai. Gorroto zital ori-ta guzti be, euzkerak aurrera jarraitzen dau eta jarraituko dau, Jainkoak orretara jarritzea nai dualako.

Egia da, ta tamalgarria izan be, Bizkai'ko euzkerak ez dau laguntzarik, Bizkai'ko Aldundiagandik eta Bizkai'ko Aureski Kutxagandik pizka bat izan ezik, guk dakigunez beintzat, baiña, Onaindia'tar Jagoba (Aita Santi), Zubika-

rai'tar Augustin. Zubiri'tar Iñaki ta abar lako idazle ke-mentsuak, bizkaiera garbi txukuna erabilli txairo eta ain-beste idazti eder idazten auzartzen diran bitartean, ez da bizkaiera garbi goixoa geiago indargetuko, idazle orreik borbozka daben adore pizkat irakurleok geureganatzen badogu beintzat.

Geure eskuartean dogu Zubiri'tar Iñaki'k idatzi-barri dauan "BORDAZURI", elebarri lez idatzita ba'dabe, gure artean azkenengo izan genduan gudaketa-aurre, gudaldi-ostean izan genduzan jazokun eta eroopen sakonenen azalpen zeatz baten bidez idazti atsegingarri bat egitera arte. Idazle trebe orrek oitura dauan lez, bizkaiera garbia, ulerkorra eta aberatzaz aurkezten jakunez, ez gara asper-tzen, atal bat amaitzen daneko, beste bat asiteko naierez aurkitzen dalako irakurlea; gu beintzat. Gaiñera, Iñaki'k dabilzan gudaketa gai asko ezagun egiten jakuz. Batzuk, jazokun orreititik urbil izan gintzazalako eta, beste ainbat Zubiri lez bizi izan diran euzko gudari askok azalduta. Egiz, Iñaki, arretaz irakurri dogu "Bordazuri" ori eta, atsegin izan jaku, irakurleak egiten dituala uste dogun idazti bikain ori.

Utsik izan ez daien "Bordazuri"k, or dago Olazar'tar Martin'en aurkezpen mamitsu zoragarria.

ALTUNA'TAR JOSU

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZTZEAK

1986

UDAKO IKASTAROA

BIZKAIERAZ

IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELENETIK EQUENARTE
GARAGARRILLAN

ORDUAK: ARRATSALDEKO 5^{etarik} - 7^{etara}
EDO 7^{etarik} - 9^{etara}

ORDAÑA: 3.000 peseta.

IZENA EMOTEKO TOKIA: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGI, 14 - 2
BILBO.
URRUTIZKIÑA 423 52 22

CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO -

HORAS: 5 a 7 6 7 a 9

PRECIO: 3.000 pesetas.

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423.52.22

**CHRISTIANE'REN ESKUTITZA**

Aita Rhaner Agurgarria:

Ba-ete daki Jaungoikoak Bera baztertuko dodana?

Arduraz naukan gai bateri buruz idatzi gura dautzut gaur. Len esandako arazoaz nabil. Gai eztabaidagarri onetzaz, sarritan aztertzen dot nire katoliku egoerea zelakoa izan bear dan, baiña nire gogamenetan ez dot inoz aurkitu nire itaun onentzat erantzun betegarririk. Orregaitik, lenengo burura etorri jatana esan gura dautzut, nire eritxiz itaunik garrantzitsuena auxe dala: Giza-izakiak, lenengotik ontzat artzen garan ala ez Jaungoikoaren aurre-aukeramenaren (predistiñaziñoaren) eragiñez ala geroago gure bizitzan zear Jaungoikoaren aurrean geure egoerea ebazten dogunean artzen dauan erabagi ori.

Jaungoikoak ez gaituala beartuten indarrez beragan sinisteko eta bera maite izateko, orretarako aukera osoa daukagula baietza edo ezetza emoteko, ba-dakigu. Orrek esan gura dau geuk erabagiten dogula geure naimenaren aukeraz Jaungoikoaren alde egon ala ez.

Ori guztiz argi ikusten dot, baiña pentsau ta pentsau jarraitzen ba'dot arazoa eztabaidagarri biurtzen jat.

Gauzea obeto adierazo dagitzudan, Judas'eri jazorikoa aitatuko dot. Itun Barriak baten baiño geiagotan diñosku Jesus'ek ba-ekiala bere nekaldiaren eta onen eragilleen barria. Nik ortik ateraten dot Judas eta beste gizonak Jesus'en bizitzan aukeratuta egozala txarren egitekoa

beteteko. Euki ete eban ba Judas'ek aukeraren bat Jesus saldu ebana baiño beste norki bat izateko? Aldi aretako Jesus'en arerioak izan ete eben aukerarik Jesus'en alde edo Jesus'en aurka jokatzeko aukerapena egiteko?

Ez eben euki. Jesus'en arerioak egin bear eben egitekoa, notin batzuk egin bear eben, Kristo'ren kurutzeratzea ta berbizkundera jazo-bearrekoak ziran-eta. Eta antzera esan bear Jesus'en alde egozan notiñai buruz. Geiago oraindiño: Nik neuk ezin erabagi neike Jaungoikoaren aurrean nire egoerea baietzkoa ala ezezkoa izango dan?

Burura jatort, ni Jaungoikoa dagoala sinistra eldu ba'naz, Berak aurrez erabagi daualako dala, eta Berak baiño ez dakiala sinismen oneri eutsiko dautsadan ala albora botako dodan.

Gaiñera beste au be esaten da: Jaungoikoak ezagutzen eta maitatzen gaituala gu jaió baiño lenegotik be. Berak ba-daki zelakoa izango dan gure egoerea bere aurrean. Olan izanda be, nik baietz esatea erabagi neinke.

Ez dakit nire itaunak egokiak diran. Bear ba'da, artuko daben erantzuna bakana izango da, baiña nik garrantzi aundikoa ta arduragarria deritxat.

Agurrik beroenak eta eskerrik asko zure laguntzagaitik. Zure ikasle Cristie.

LETONA'K EUSKERATUA

IRAGARRIA?

Luzaro egon naz lauki aren aurrian,
aztiro so-egiten dau neure begiak.
¿Gorengotariko margolaria?
Ezin dot nik esan, baña biotzian
Itxartu ta jagi da gomutea.

Goien ildegia
burdiñezko atiak odeien artian
ikusten dira.
Zerua ubelduta, odeiak, gorriak
gero ta geiago illundutuak.
Dana da illuntasun ekaitzen aurrian.
Berago soluak mendi aldapean,
eta danetan elduta, garia;
galburu zuriak: buruak astunak
makurtzen dira.

Gari buru onek, ain beste ta ain beste...
Olantxe gastiak kalia betetzen

estututen ziran, Aberri-Egunan.
Zubek gari buru elduta zarie
euzko gastediaren irudipena.

Gariak ba dagoz etxera begira.
¡Jaungoiko laztana! Etxerik eztago...
Bakarrik an goien dago ildegia!
Otz-ikar gogorak arrapatzen nau
azurretarano, uda izan arren;
alaya ta poza iges egin dabe.
Biotz tximurturik neure barruan.

Uxatuten dodaz oldozpen itunak.
Adiskide billa iradun nua.
Biar dot benetan lagunen yarduna.
Eta alan aztintza, bein, aitzu neban.

UTARSUS

EUSKALERRIKO AIDE NAGUSIAK IÑAKI DEUNA - JOSULAGUNDIA

Birjaiotzako gertakizunik aundienetako bat Iñaki Loiola'tarrak Josulagundia sortu izatea dogu zalantzarik gabe. Ain zuzen, orduantxe bertan sortu zan, gaur guretzat mingarriena dan Eliz-Edestiko arozoa: Afrika'tik Ameriketara eramandako jopu beltzen arazoa. Arazo ori XVII eta XVIII mendeetan egin zan ikaragarriena, milloika izan bait ziran orduan joputzara beartutako afrikatar gazteak. 1750'aren inguruan zuriak baiño geiago ziran Afrika'tik indarrez aterata Ameriketara bizi ziran beltzak. Eta ez zuan iñork orduan okerkeri aren aurka deadarrik egin. Ezta Elizak ere. Eta, ezta, Elizaren altzoan, Iñaki Loiola'tarrearen semeek ere.

Mende bat leenago ere, Birjaiotzakoan, beste ekintza guztietarako ain erneak izan ziran lenen oiñordeko iñakitar aiek ez zuten gizizti edo soziologiarentzat zentzumen ernerik izan. Bitori'ko Frantzisko'ren bideetatik ederki idatzi zuan demokraziaren alde Suarez'tar Frantzisko'k, baiña giziztiaren arloan ez jakon gazteiztarrak asi zuan lana aurrera eramaterik gogoratu. Ez zan, ori egin zitekeanik eta ori egin bear zuanik, oartu ere.

Bitori'ko Frantzisko'ren erakuspenen atzetik, oiñarri lez, Euskalerriko Lege Zarra dagoala esan oi da. Araba'ko Lege Zarra, ain zuzen: Arriaga'ko landa eraspengarrian Araba jaurtu edo gobernatzeko biltzen ziran "Jaun eta Andre" iare aien Lege Zarra.

Bitori'ko Frantzisko bezala, euskalduna zan Loiola'ko Iñaki. Araba bezain iarea zan Gipuzkoa, eta Araba'koa bezain onuragarria Gipuzkoa'ko Lege Zarra; ta Gipuzkoa iare ortako semea zan Iñaki Loiola'tarra.

Bazituan gaiñera Loiola'ko Iñaki'k eusko-endaren doai guztiak. Baiña gazte-gaztetaik bere Gipuzkoa'tik kanpo Gaztelerriko aundikien esanera atzerrian bizi izan zan-da, bere soziologia ez zan beiñere Euskalerriko soziologia izan, Espaiñ'ko Inperioarena baizik. Umetatik erbestean egona zalako, ¿ez ote zuan bere Gipuzkoa'ko Lege Zarra era egokian ezagutzen? ¿Ez ote zuan Lege Zar ori maite? Ez dezagun aantzi Gipuzkoa'n jaijo zala Iñaki, baiña... Aide Nagusien ume! eta Aide Nagusi aiek Euskalerriko Laterri guztietan Euskalerriko Lege Zarraren etsai amorratuak izan zirala!

Aide Nagusiak ziran Loiolatarrak ere, "oiñaztarrak", ain zuzen, erdiaroko euskal-anaiarteko-gudian. Arroak, borrokalaria, atzerrietatik etorritako aristokrazi-aizeak zorabiatuak; beste euskotar danak baiño jatorri garbiagoak, eta erriko jende xearen jaun-da-jabe izateko jaiok zirala uste ebenak. Orrela pentsatzen bai eben orduango Aide Nagusi aiek danak!

Euskalerrian ordea erriko jendea izaki Agintari-ta, ondo ezagunak dira Aide Nagusi aien eta Euskalerriko Batzar Nagusien artean izandako iskamillak. Gogor erantzun bai eutson Aide Nagusien oligarkiari Euskalerriko demokrazi sendoak, erriak bere agitaritza ta iaretasunik galdu nai ez ebalako. Batzar Nagusien ekintzei eskerrak izan ziran lurrera jaurtiak Aide Nagusien gazteluak, eta gaztelu aiekin batera jausi zan, ezereztua, Aide Nagusi aien "nagusitza" guztia ere. Galdu zuten, baita're, Euskalerriarekin eben "aidetasuna", Batzar Nagusiek eusko-politikan parte artzea debekatu eutsenean: Euskalerriko politikarako, Aide Nagusiak, ez autale ez auta-gai!

Jo zuan lur, besteak bezala, Loiola'ko gazteluak ere ez bait ziran gaztelu artako jendeak borroka aietan beste Aide Nagusiak baiño gozoagoak izan.

Euskalerriko Demokraziak, Espaiñ'ko feudaritza Euskalerrira ekartzen ez eutsela utziko sumatzen ebelako, Euskalerriko Lege Zarraren etsai eta Gaztela'ko Erregeen adiskide izan jakuzan Aide Nagusiak; sumatzen bai eben, baita're, aingura eben feudal-nagusitza Errege aien despotikeriak errez eta pozik emango eutsela!; Erregek beraiek ere, beren indarra eta agintaritza sendotzen bai ebezan eman, Aide Nagusien nagusitza sendotuaz euskal-demokrazia ezerezten ba'eben!

Ez dot esan nai Iñaki Doneak Euskalerritari gorrotoa eutsonik, ezta bere gogoia gorroto orrek erabilli ebanik ere. Ez orixe! Iñaki'ren kontzientzipe edo subkontzientziaz ari naiz soilki mintzatzen.

"Iñaki Donea", len, "Eneko zalduna" izan jakun; zaldun arro aundikeri-zale borrokalaria. Ta, naitanaiez, Iñaki Deunaren kontzientzi argiaren azpi illunean, Iñaki'ren subkontzientzian, bizirik ziarduen Eneko aundikeri-zalearen aztarnak, ots, gaztearoko bizierak eta orduango

amets, lei, eta gertakizunek, gizakume guztien kontzientzi-
pean uzten dituzten aztarna oarkaitzak.

Oroi, bere gazte-denboran, beste Aide Nagusien antze-
ra, xaguak kattua bezain maite izan zituala noski Eneko
zeritzan zaldun txoro ergel arek sortzea eman zion erria-
ren demokrazi-sena, oiturak, eta Legeak!

Ta, Aide Nagusiek eusko-erakundeekin izandako
borroka ta gorrotoak alde batera izten ba'ditugu ere, eka-
rri dagiguzan gogora zein eta nolakoak izan ziran Eneko
Loiola'tarraren ereduak eta jainko txikiak: V Karla Inpe-
ratore dizdiratsua, Gaztela'ko Erregiñ pinpiriña, Errege-
-Erregiñ aien inguruko aristokrazikume erdi-feudalariak,
eta zaldunkerizko liburuetan agertzen ziran Amadis Gau-
la'koaren antzeko zaldun aundikeri-maitaleak.

Ez, Iñaki'ren adimena ez egoan, iñolaz ere, politikaren
eta soziologiaren barrutietan gizakume guztiak berdiñak
zirala errez ikusteko prestatua. Iñaki'ren eziketa, ez zan
euskotarra izan, espainiarra baizik; ez, noski, demokrazia-
ganako zaletasuna sortzeko egokiena.

Orregaitik, gero ere, Iñaki apaizaren pentsamentuan
gizarteari-buruzko gogapenak bere sorterriko legediaren
izpiritutik milla leguaz aparte ibilli ziran. Euskalerriko
Demokraziaz ez zan oroitu ere egin. Alderantziz, Karla
V'aren Inperioaren eredura ikusi eban mundua. Mundu
ortan, Jainkoak ala naita, Errege izateko jaiok ziran ba-
tzuk: Jainkoaren ordezkari izateko! Beste batzuk berriz,
Zalduntza onegarrirako ziran jaiok, Erregeen esanera
erri xearen babesle izateko. Erria berriz..., erri xea, nugu-
sien esanera apalki eta zoriontsu bizitzeko. Ta..., ororen
gaindik Inperatorea!!!

Teokraziaren lurriñez kutsutua egon zan Iñaki'ren
oldozkera: Errege bat, Jainkoaren ordezkari, (V Karla'ren
antzeko Errege bat). Errege orren esanera, aundiek eta
zaldunak (ots, Aide Nagusiak!). Agintari oien eta Errege
aren menpe eta babespe gozoan..., Jaikoaren Erria: Kris-
taudia.

Ain zuzen, oldozkera orixe agertzen zaigu Gogo-
-Jardunetako "del Rey temporal" deritzan otoitz gaiean.
Eta baita Josuren Lagundiko Konstituzio edo Oñarri-
-Legeetan ere. Aide Nagusiek Euskalerria tajutu nai izan
zuten bezala tajutu nai izan eban Iñaki'k bere Lagundia:
Erria beean; agintzeko eskubiderik ez dauan erria. Aide
Nagusiak gero, erri orren agintari. Erregea guztien gain-
dik, bizitza guztirako agintaritzza berea dauan Erregea.
Orrelaxe dago eraikia Josuren Lagundia ere: Erlijosio
arruntak beean; gorago, Laugarren Probazioko Aitak (Ai-
de Nagusiak); eta danen gaiñetik, bizitza guztirako, Aita
Jenerala.

¡Bazuala Aide Nagusien oldozkeraren kutsua Iñaki'-
ren oldozkerak! Eta, legezkoa zanez, orrelakoa izan zan
Iñaki'ren semeen oldozkera ere. Ez gaitezen ba arritu,
Gipuzkoa'ko Aide Nagusi baten seme ziralarik Iñaki Deu-
naren semeek, Birjaiotzakoan eta Argikuntzakoan, sozio-
logiaren arloko arazoetaz oartzeko zentzumenik ez iza-
teaz.

Ala, iñakitarrak, Errege Despotikoen adiskide izan
ziran Kristaudi guztian, eta, Afrika'tiko jopuen arazoa, jez
zuten ikusi ere egin! Beren eginkizun guztia, —oroi deza-
gun Kepa Klaber Donea—, jopuei laguntzea izan zan ez
joputza gaitzestea. Jopuak ikusi zituzten, jopu gaixo eru-
karriak; joputzarik ez zuten ikusi!

Egia da, berdiña izan zala orduan munduko beste era-
kunde eta pertsona guztien jandunkera; baiña iñakitarre-
taz ari gera emen. Eta, iñakitarrei-buruz zillegi bezaigu
erantzunik ez dauan galdera bat: Izan ziran bezalakoa
izango ote ziran lenen-iñakitar aien pentsaera ta jokaera,
Iñaki Loiola'koa Aide Nagusien seme izan bearrean,
Gipuzkoa'ko Batzar Nagusietako batzarkide errikoi trebe
aietako baten semea izan balitz?

LATIEGI'TAR BIXENTE

ARETXABALETA'KO JAUREGIAK**OTALORA**

Aretxabaleta'ko Udal-lurretan, leenago esanda dagon bezela, Urbiltegi eder bat dago. AOZAZARAKO GOI-ZELAIAN, bere izena "URKULU".

Orain aipatuko doguz, an inguruan dagozan Jauregie-txe batzuen izenak eta batzuen zer egiña.

Bertako etxerik garrantzituena OTALORA da, labur-laburrean esanda "OTALA", esaten dautsoe guztiak.

Zergaitik AIPATZEN dogun etxe au?

Lenengoz OTALORA Dorretxea, "Monumento Historiko Artistiko" dalako, 1964'garren urtetik onantz.

Bigarrenez Arrasate'ko Bazkunde edo Kooperatibaren eskuetan dagolako.

Orain etxe ori ondo aprobetxatua da une onetan, lenago ondo apaindurik itxi ebelako Kooperatiba orrek.

Toki orretan EUN JAKITUN GAZTEK jarraitzen dabez IKASKETA BEREZIAK.

Eskuntz-Egitaroan bi ikastaro teoriko eta praktikoak daukoz.

Ikastaro teorikotan enpresa baterako alor desberdiñen ezagueran ekingo dau da, eta baita bakoitzari daukan espezialitatean ere.

Eta ikastaro praktikoak be egiten dira.

Kooperatiba onetan EZKUNTZA be lanketan da.

TALDE edo KOOPERATIBA-ENPRESAKO beari-zanen azterketa.

Ezkuntza planen prestaketa.

Argitalpenak be badaukoz: T.U. -LANKIDE. OINARRI bilduma Kooperatibismoari buruz. OTALORAKO koadernuak.

Etxe onetako LAN BEREZIAGAITIK, ARRASATE'ko Kooperatibea, oso ederto doa ETXE orretako gaztediaren artean aurrerapenak agertzen diralako.

ZUBETZU

OTALORA etxez ganera, an inguruan badagoz beste JAURECI etxe asko, danak aipatu eziñik, bi edo iru gogoratuko dodaz.

Leenago etxe zarrak izan ziranak, orain etxe BARRI, biurtu dira, eta ederto apaindurik dagozelako.

Zelai, Matiko eta ZUBETZU, beste askon artean.

Askenengoa au aipatzen dot, niretzat gauza erakusgarri bat aurkitzen dodalako, bertan bizi diran, jentek erakutsi-ta.

Emen bizi da ETXEBERRIA'tar sendi edo famili bat.

Etxeberria'tar 12 seme-alaba izan ziran, Narziso eta Felisa'ren semeak. Orain 9 bizi dira. IRU eskongabeak, eta SEI eskonduak, baiña leenagoko tellatu azpian. Etxea geiago jaso dabe eta egin dabez SEI BIZITZA, guztiz barriak, danak alkarren ondoan biziteko, noizik beñean beintzat.

Bakoitzak, bere izerdiakin egin dauz sukalde, gela eta beste etxe bateko gauza guztiek. An sendi bakoitza, aurkitzen da etxe baten moduan. An batzen dira anai-arreba eta koñetu eta seme-alabak asteburuetan, gabonetan, eta beste jaiegun askotan.

Niretzak alkartasun au gauzarik pozgarriena, ederrena eta gozatsuen da.

Orregaitik Liburu Santuak diño: "Quam bonum eta quam jucundum habitare frates in unum".

Lateratik itxulita-esan nai dau: Zelako gauza polita, gozoa eta ederra dan, neba-arrebak alkarren maitasunean bizitzea!

Niretzat gauzarik ikusgarriena.

An iñor ez da aberatza, baiña abaraztasunik ederrena, BAKEAN eta alkarri laguntzean bizitzea. Olan bizi ezkerro ez dago BURRUKARIK.

Ganera bakoitzak dauko, bertako lur zabaletan, baratz zati aundi bat.

Danak ibiltzen dira, ALKARREN LEIAN, zeñiek obeagoak euki: Aza, porru, kipula, berakatz lursagar, leka, serba, piper, eta abar.

Zimela daukanari, barre egiten dautzoe, eta beste barik, zirikatzen da ALPERRA.

Baratz-ingurua dauke ZUGATZONDOKO igaleakin, ta bere sasoiari oso pozik artzen dira arbolatik eguneko fruita edo igalea, goizetan gauzarik ederrena arbolatik artu eta agora eroatera.

Orretaz ganera abereak be ba dabez: 16'tik 20'ra inguru bei eta txal aundi ta txiki.

Untxi batzuk, olloak ta txarriak, euren sasoiari ilteko.

Onelan kaletik datorren SARIORDEA, osorik euki leikie eta ASTIA emon ederto, lan egiñaz eta osasuna gorde obeto aize garbia artuaz.

Lobatxuok jarraitu bide oneri, zuzen zoazelako. AGUR.

Etxe onen antzera beste asko, ia geienak, onelan bizi dira inguru aretan. Esan geinke bildur barik, gaur egun LENIZ'ko lurak, lan-kontuan ondoen dagozala.

ETXEBERRIA'TAR ISIDOR

ZERDALA TA ZERDALA...

1. Etxe zuri bat, bazterrik ez, ate, leio eta balkorik be ez.
2. Gela bete aizkora.
3. Bizarra dauka baiña ez da gizona, zuria da eta ez da izarea, berdea da eta ez da bedarra.
4. Jaun bat anka baten gainean, eta txapel aundi bat buruan.
5. Besteak beti jantziten, eta bera beti billuzik.
6. Urtearen asieran gizen-gizena, eta azkenean argal-argalena.
7. Kenduaz-kenduaz azi eta aundiago egiten dana.
8. Zugaitz gorengoak igon, eta errekarik txikiena ezin igaro.
9. Puntan punta bi, eta atzean zulo bi.
10. Ikatza bezain baltza, edurra bezain zuria, oiñik ez eta badabil, miiñik ez eta berba egiten ba daki.
11. Mendirakoan etxera begira, etxerakoan mendira begira.
12. Mendian jaio eta mendian azi, errira etorri eta aginten asi.
13. Luze da luze sokearen legez, agiñak daukaz otsoak legez.
14. Beti etxe barruan eta beti bustirik.
15. Balio ez jateko, eta bera barik ezin bizi.
16. Sasi artean urratu ez, uretan be busti ez.
17. Ikusten dot, ondoan dot, ezin arrapatu dot.
18. Aragia kanpotik, alkondara aragiaren barrutik.
19. Iturrira edatera joan, eta edan barik etorri.
20. Ama anka-makur, alaba eder, eta semea dantzari.

1. Arrautzea.— 2. Agoa.—3. Kinpula.—4. Perretxikoa.—5. Jostorratza.— 6. Egutegia.—7. Zuloa.—8. Ifurria.—9. Artaziak.—10. Eskutitza.—11. Auntzaren adarrak.—12. Alkaterearen makilla.—13. Sasia.—14. Miiña.—15. Dirua.—16. Eguzkiaren argia.—17. Kerizpea.—18. Kandelea.—19. Beiaren arrana.—20. Matsondoa, matsa eta ardaa.

INAKI GOIKOETXEA

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

— Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarría Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.